

GAIXOTASUN PROFESIONALEN SUSMOEN JAKINARAZPENAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2013-2023 URTEETAKO BILAKAERA
2023 URTEKO ANALISI-TXOSTENA

OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Gaixotasun profesionalen susmoen jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoan

2013-2023 urteetako bilakaera
2023. urteko analisi-txostena



Barakaldo, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Library of Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Izenburua: Comunicaciones de sospechas de enfermedad profesional en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Evolución de los años 2013-2023. Informe de análisis del año 2023. / Euskal Autonomia Erkidegoko gaixotasun profesionalaren susmoen jakinarazpenak 2023. 2013-2023 urteetako bilakaera. 2023ko azterketaren txostena.

Argitaraldia: 1.a, 2024ko azaroa

Ale-kopurua: 30 ale.

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Argitaratzailea: OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales
Dinamita bidea, z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Egileak: Idiazabal Garmendia, Jasone eta Ollakindia Bueno, Noemi (Osalaneko Lan Osasun Unitateko Epidemiologia eta informazio-sistemen arloa).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Diseinua eta inprimaketa: Fotocomposición IPAR S.COOP.
Zurbaran Kalea 2, 4- behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).

Lege-gordailua: LG BI 1407-2024

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	6
Grafikoen aurkibidea	7
Laburdurak	8
Aurkezpena	9
1. Sarrera eta helburuak	10
2. Metodoa	12
2.1. Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea	12
2.2. Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak	13
2.3. Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak	13
3. Emaitzak	15
3.1. Gaixotasun Profesionalen Susmoen (GPS) jakinarazpenen bilakaera, 2013-2023	15
3.2. 2023an izapidetutako Gaixotasun Profesionalen Susmoen (GPS) jakinarazpenen analisisa	24
4. Ondorioak	38

Taulen aurkibidea

1. taula.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2013-2023	15
2. taula.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2023.....	17
3. taula.	Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2013-2023.....	19
4. taula.	Jakinarazpenen jatorria, ESIka. EAE, 2013-2023.....	19
5. taula.	Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE, 2013-2023	20
6. taula.	Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2023..	20
7. taula.	Jakinarazpenen kopurua diagnosi-taldearen arabera. EAE, 2013-2023.....	21
8. taula.	Jakinarazpen kopurua, guztira eta emaitza sorburuaren arabera. EAE, 2023.....	23
9. taula.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2023	25
10. taula.	Izapidetutako jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2023	29
11. taula.	Izapidetutako jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2023	30
12. taula.	Izapidetutako jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2023.....	31
13. taula.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2023	32
14. taula.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; gizonak. EAE, 2023.....	34
15. taula.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; emakumeak. EAE, 2023	35
16. taula.	Jakinarazpenen kopurua, epikondilitisaren eta karpoko kanalaren sindromearen ebazpenaren eta sexuaren arabera. EAE, 2023.....	36

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua. EAE, 2013-2023.....	16
2. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldearen arabera. EAE, 2013-2023.....	16
3. grafikoa.	GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera. EAE, 2013-2023.....	17
4. grafikoa.	Jakinarazpen-kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2013-2023	18
5. grafikoa.	Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2013-2023.....	22
6. grafikoa.	Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sorburuaren arabera. EAE, 2013-2023.....	23
7. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sorburuaren arabera. EAE, 2023	24
8. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta sexuaren arabera. EAE, 2023.....	25
9. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua adinaren eta sexuaren arabera. EAE, 2023.....	26
10. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 ED-ko taldeen arabera. EAE, 2023.....	27
11. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera. EAE, 2023.....	28
12. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera. EAE, 2023.....	32
13. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; gizonak. EAE, 2023	33
14. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; emakumeak. EAE, 2023.....	35
15. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen ehunekoa sexuaren arabera. EAE, 2023.....	36
16. grafikoa.	Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen guztirako kopurua sorburuaren arabera. EAE, 2023	37

Laburdurak

AE	Arreta Espezializatua.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ESI	Erakunde sanitario integratua (Osakidetzakoa).
GP	Gaixotasun profesionala.
GPS	Gaixotasun profesionalaren susmoa.
GPSA	Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena.
GSIN	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala.
GSML	Gizarte Segurantzako mutualitate laguntzaileak.
GNS	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena.
IM	Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoa.
JESN	Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala.
KPZ	Kanpoko prebentzio-zerbitzua.
LMA	Lehen mailako arreta.
LOU	Lan Osasun Unitatea.
O	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua.
PZ	Prebentzio-zerbitzua.
PZP-PZM	Prebentzio-zerbitzu propioa - Prebentzio-zerbitzu mankomunatua.

Aurkezpena

Urtero, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakunde autonomoak, txosten bat egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan jakinarazi diren gaixotasun profesionalen susmoak aztertzeko. Gaixotasun profesionalaren susmoa adierazko prozedura (GPSA) azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan oinarritzen da (Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartzen duen eta gaixotasun horiek jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak ezartzen dituen Errege Dekretua), eta, horren arabera, Osasun Sistema Nazionaleko eta prebentzio-zerbitzuetako fakultatiboek gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunak jakinarazi behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osasun sailburuordearen, Osalaneko zuzendari nagusiaren eta Osakidetza zuzendari nagusiaren 2007ko abenduaren 26ko Instrukzioak, profesionaltzat jo daitezkeen edo jatorri profesionala izan dezaketen gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoak, eta Osalaneko zuzendari nagusiaren 2007ko abenduaren 11ko Ebazpenak, prebentzio-zerbitzuetatik Osalaneko Laneko Osasuneko Unitatera gaixotasun profesionaleko kasu susmagarriak jakinarazteko prozedura ezartzen duenak, gaixotasun profesional horien deklarazioa erraztu eta egiten lagundu nahi duen Gaixotasun Profesionalaren Susmoa Deklaratzeko sistema hau arautzen dute.

Horrela, sistema publikoko nahiz prebentzio-zerbitzuetako osasun-zerbitzuetatik gaixotasun profesionalen identifikazioa eta komunikazioa areagotuz eta langileei gaixotasun profesionalen arloan Gizarte Segurantzaren babes-ekintzarako eskubidean lagunduz, arlo horretako ezagutza sustatzen ari gara, eta hori funtsezkoa da lan-osasuneko prebentzio-planak eta -programak garatu ahal izateko.

Zalantzarik gabe, sistema hori etengabe bultzatzen ari denez, 2023an nabarmen igo da jasotako jakinarazpenen kopurua, 2022. urtearekin alderatuta, bai eta emakumeen jakinarazpenen intzidentzia-tasa ere, komunikazio-sistema hasi zenetik izan den handiena izan baita.

Lourdes Íscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

1.

Sarrerak eta helburuak

Gaixotasun profesionalaren susmoa (GPS) jakinarazteko prozedurak azaroaren 10eko 1299/2006 Errege Dekretuan du oinarri juridikoa (Gizarte Segurantzaren sistemako gaixotasun profesionalen koadroa onartu eta horien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen ditu Dekretu horrek).

Errege-dekretu horrek agintzen du aldatu egingo dela jakinarazteko eta erregistratzeko sistema, eta prozedura hori susmo-diagnostikoa egin dezaketen langile medikoekin lotuko dela, gaixotasun profesionalen deklarazioa hobetze aldera, *Gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen gaixotasunen jakinarazpena* izenburuko 5. artikulua bidez.

Artikulu hori Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) egokitzeko, LANEKO GAIKOTASUNAREN SUSMOAK JAKINARAZTEKO sistema bat eratu da, eta haren arabera, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Laneko Osasuneko Unitateak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Ikuskaritza Medikoek osatutako organoak izango ditu arlo horretako eskumenak.

Sistema hori honako arau hauen mende dago: «2007ko abenduaren 26ko Jarraibidea, Osasun sailburuordearena, Osalaneko zuzendari nagusiarena eta Osakidetzako zuzendari nagusiarena, gaixotasun profesionaltzat jo daitezkeen edo jatorria lanbidean dutela susmatzen den gaixotasunak jakinarazteko prozedurari buruzkoa» eta «2007ko abenduaren 11ko Ebazpena, Osalaneko zuzendari nagusiarena, Osalaneko Laneko Osasuneko Unitateko prebentzio-zerbitzuetatik gaixotasun profesionalaren susmoak jakinarazteko prozedura ezartzen duena» (2008-01-17ko EHAA, 12. zk.).

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko pertsonal fakultatiboak eta prebentzio-zerbitzuetako pertsonal fakultatiboak sartuko dira prozedura horretan, eta haiek eman ahal izango dute susmo-diagnostikoa.

GPSak jakinarazteko prozedura 2008an jarri zen abian EAEn. «Gaixotasun profesionalaren susmoaren adierazpena (GPSA)» izeneko aplikazio informatikoaren bidez erregistratzen eta kudeatzen dira susmo-jakinazpenak. Aplikazio hori partekatzen dute Osalaneko Laneko Osasuneko Unitateek eta Osasun Saileko Ikuskaritza Medikoek. EAEko Gizarte Segurantzako 7 mutualitate laguntzaile (GSML) nagusiek erabiltzen dute aplikazio hori, beren aplikatiboen bidez, bai eta EAEn baimenduta dauden prebentzio-zerbitzuek ere, «Gutxieneko Datu Multzoa» aplikazioaren bidez.

Jakinazpenak dagozkien GSMLei igortzen zaizkie web zerbitzuaren bidez, amiantoa agente eragile duten gaixotasunak izan ezik, horiek GSINera igortzen baitira, «*GSINren, EAEko Administrazio Orokorraren, Osakidetzaren eta Osalanen arteko lankidetzaren hitzarmen espezifikoan*» xedatzen den eran.

GPSak jakinarazteko sistema horren xedeak honako hauek dira, beste batzuen artean:

- Gaixotasun profesionalen adierazpenak erraztea.
- Sistema publikoko osasun-zerbitzuek eta prebentzio-zerbitzuek gaixotasun profesionalak neurri handiagoan identifikatzea eta jakinaraztea.
- Langileek GPen arloan Gizarte Segurantzaren babesa jasotzeko duten eskubidea sendotzea.
- Osasunari buruzko datuen iturri bat izatea, laneko osasunaren esparruan prebentzio-programak prestatu ahal izateko.

2.

Metodoa

Txosten honetan, GPS jakinarazpenen ezaugarri nagusien azterketa deskriptiboa egiten da, 2 atal nagusitan banatuta. Alde batetik, 2013 eta 2023 artean jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaera aztertzen da, eta 2023an jasotako jakinarazpen guztien ezaugarri nagusiak nabarmentzen dira. Bestetik, 2023an izapidetu eta baloratzeko GSMLetara eta GSINera bidali ziren jakinarazpenei buruzko azterketa deskribatzaile zehatzagoa egiten da.

2.1. Datu-iturria eta aztertutako denbora-tartea

GPS jakinarazpenei buruzko azterketa-txosten hau egiteko, espedientea izapidetzeko erabilitako GPSA aplikazio informatikoan sortutako fitxategia izan zen datu-iturria. Gainera, Gizarte Segurantzaren afiliatutako EAEko langileen datuak erabili ziren informazio-iturri gehigarri gisa.

Jasotako jakinarazpenek denborak aurrera egin ahala izandako bilakaera aztertzeko, 2013tik 2023ra bitarteko datuak erabili ziren.

2023ko jakinarazpenen azterketa deskriptiboa egiteko, GPSA aplikazioan 2023ko urtarriaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarte erregistratutako jakinarazpenetako informazioa erabili zen.

Ebatzitako espedienteak zenbatu ahal izateko, 2024ko urriaren 2ra bitarte jasotako datuak bildu ziren. Jaso dira, gerora, aurreko urteetako espedienteen jakinarazpenen gaineko beste ebazpen batzuk; beraz, posible da onartutakoen eta baztertutakoen azken kopurua aldatu izana.

2.2. Aztertutako populazioa, sartzeko irizpideak eta kanporatzeko irizpideak

EAEko enpresetako langile guztiak sartu ziren aztertutako populazioan, langileen bizitokia EAEtik kanpo bazegoen ere.

Jakinarazpenak izapidetzeko prozeduran, aurretiazko zenbait egiaztapen egin ziren, azkenean GPSak izapidetuko ziren ala ez erabakitzeko.

2013tik 2023ra bitarte jasotako jakinarazpenen kopuruaren bilakaeraren azterketan, eta 2023ko jakinarazpen guztien azterketan, jasotako GPS guztiak sartu ziren.

GSMLetara eta/edo GSINera izapidetu ziren 2023ko jakinarazpenen azterketa deskribatzailean, baztertu egin ziren 1299/2006 EDaren Gaixotasun Profesionalek koadroan jasota ez zeuden diagnostikoak zituzten jakinarazpenak, lehenago izapidetutakoak, kontingentzia profesionalengatik prestazioa jasotzeko eskubiderik ez zuten langileenak eta aurretik GP gisa aitortuta zeuden komunikazioak. Halaber, ikertu ondoren, alde batera utzi ziren txostena bidaltzea ez zela egokia erabaki zen jakinarazpenak, bai eta prozedurarekin jarraitzeari uko egin eta beren lan-bizitzari buruzko informaziorik eman ez zuten kaltetue-nak ere.

Azken puntu horri buruz, esan behar da azterketan sartu zirela, Gizarte Segurantzaz zuten egoera alde batera utzita, erretiratutako pertsonen eta langabezia-egoeran zeuden pertsonen jakinarazpenak, gaur egun prestazioa jasotzeko eskubiderik izan ez arren, lan-egoera aktiboko langile zirenean GP aitortzeko eskubidea baldin bazuten.

2020. urtetik aurrera, norbere kontura dabiltzan edo autonomoak diren langileen Gizarte Segurantzako Araubide Berezian kotizatzen duten langileen azterketa egiten hasi zen.

2.3. Aztertutako aldagaiak eta erabilitako maiztasun-neurriak

Honako aldagai nagusi hauek bildu ziren azterketarako:

DIMENTSIOA	ALDAGAI DESKRIBATZAILEA
PERTSONA	Sexua Adina
JAKINARAZPENEN JATORRIA	Jatorria (O/PZ) AE/LMA/IM (ESI) PZ/LOU (PZ mota)
GAIXOTASUNA	Diagnostikoa (GNS, diagnosi-taldeak, 1299/2006 ED taldea)
LANA	Enpresaren kokapena (lurraldea) Agente eragilea Sektorea
EBAZPENA	Onartzea / Ez onartzea

GPSak Osakidetzatik eta prebentzio-zerbitzuetatik jakinarazi ziren, eta horrek izena eman zien bi jatorriei: Osakidetza (O) jatorria eta Prebentzio Zerbitzua (PZ) jatorria.

O jatorriko jakinarazpenen iturria aztertzeke, bere aldetik, honako atal hauek banatu ziren: Lehen Mailako Arreta (LM), Arreta Espezializatua (AE), eta Ikuskaritza Medikoa (IM). PZ jatorria, bere aldetik, Prebentzio Zerbitzutik (PZ) zetozenen eta Laneko Osasuneko Unitate-tik (LOU) zetozenen artean banatu zen.

Osakidetzako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, zer osasun-etxe-tatik zetozen kontuan hartu eta ESika multzokatu ziren. Prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboen jakinarazpenen jatorria aztertzeke, jasotako jakinarazpenak PZ motaren araberak multzokatu ziren: alde batetik, kanpoko prebentzio-zerbitzuetatik (KPZ) zetozenak, eta, bestetik, prebentzio-zerbitzu propioetatik edo mankomunatuetatik (PZP-PZM) zetozenak.

Jakinarazpenak jarduera-sektoreka aztertzeke, JESN 09 Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren arabera kodetu ziren, eta bi digitutara multzokatu ziren.

Txosten honetan egindako azterketa deskriptiborako, aztertutako aldian jasotako jakinarazpenetako zenbakiak edo zenbaketak erabili ziren batez ere, eta baita ehunekoak ere. Bestalde, 2013tik 2023ra bitartean jasotako jakinarazpenen kopuruaren denbora-bilakaera aztertzeke, tasak erabili ziren, Gizarte Segurantzaren afiliatutako EAEko langileak erreferentziatzat hartuta. Taula eta grafiko gehienetan sexu-aldagaiaren eta jatorri-aldagaiaren arabera banatu ziren emaitzak.

Datuak aztertzeke Oracle® Business Intelligence programa erabili zen, eta grafikoak eta taulak Excel 2016 programaren bidez sortu ziren.

3.

Emaitzak

3.1. Gaixotasun Profesionalen Susmoen (GPS) jakinarazpenen bilakaera, 2013-2023

3.1.1. GPS bilakaera 2013-2023: Intzidentzia

EAEen GPSen jakinarazpen-prozedura ezarri zenetik, 2010. eta 2012. urteak nabarmendu ziren intzidentzia-tasa handiagoa izateagatik, prebentzio-zerbitzuetatik helarazitako jakinarazpenen ondorioz, aurreko analisietan jakinarazi den bezala.


2013. urtetik aurrera, 1. grafikoan ikus daitekeenez, komunikazio-tasak beheranzko joera izan du urtero, 2022. urtera arte, urte horretan gorantz egin baitzuen, baita, nabarmenago, 2023an ere.

Aurreko urteetako analisietan Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) argitaratutako EAEko biztanleria zenbatetsiaren datuak erabili ziren intzidentzia-tasak kalkulatzeko. Azterketa honetan, Gizarte Segurantzara afiliatutako EAEko langileak erabili dira aztergai gisa, Osalanen gainerako txosten estatistikoeekin irizpideak bateratzeko; beraz, aurreko urteetako analisiekin alderatuta, intzidentzia-tasaren datuak aldatu egin dira.


1. taula. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa. EAE, 2013-2023

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Intzidentzia-tasa ‰	1,11	0,98	0,79	0,78	0,57	0,6	0,46	0,43	0,4	0,49	0,82
Jakinarazpen-kopurua	803	709	585	587	443	478	432	394	372	469	791

1. grafikoa
GPS jakinarazpenen intzidentzia-indizea eta kopurua.
EAE, 2013-2023



2. grafikoa
GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa lurraldearen arabera.
EAE, 2013-2023



Hiru lurraldeetako intzidentzia-tasak behera egin zuen 2013tik 2020ra, Bizkaian izan ezik, 2018an pixka bat gora egin baitzuen. 2021. urtetik aurrera, 2. grafikoan ikus daitekeen be-

zala, igoera gertatu da hiru lurraldeetan. 2023an, intzidentzia-tasak gora egin zuen hiru lurraldeetan aurreko urtearekin alderatuta, eta handiagoa izan zen Bizkaian (‰ 0,95) Gipuzkoan (‰ 0,68) eta Araban (‰ 0,67) baino.


Urte guztietako guztizko komunikazio-tasak lotura zuzena izan zuen gizonen komunikazio-tasarekin; izan ere, komunikazio gehienak gizonenak izan ziren, eta emakumeen intzidentzia-tasa txikiagoa izan zen.

2023an, emakumeen jakinarazpen-tasa azken 11 urteetako handiena izan da, aurreko urteetako tasa bikoiztuz, ‰ 0,68ra iritsi baitzen, 2. taulan eta 3. grafikoan ikus daitekeen bezala.

2. taula. GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera.
EAE, 2013-2023

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Gizonen intzidentzia-tasa ‰	1,83	1,63	1,31	1,24	0,87	0,8	0,69	0,55	0,55	0,61	0,94
Emakumeen intzidentzia-tasa ‰	0,35	0,3	0,25	0,29	0,26	0,39	0,21	0,29	0,24	0,37	0,68

3. grafikoa
GPS jakinarazpenen intzidentzia-tasa sexuaren arabera.
EAE, 2013-2023




3.1.2. GPS 2013-2023 bilakaera, sorburuaren eta jatorriaren arabera

Komunikazio-sistemaren hasiera-hasieratik, jakinarazpen gehienak prebentzio-zerbitzuetako pertsonal fakultatiboak izan ziren sorburua, baina 2020. urtean joera hori alderantzizatu egin zen, eta horrela jarraitu zuen 2023. urtean, 4. grafikoa ikus daitekeen bezala.

2023. urtean, GPSen 791 jakinarazpen jaso ziren: 661 jakinarazpen Osakidetzatik eta 130 Prebentzio Zerbitzutik. 2022. urtearekin alderatuta, EAEko jakinarazpenen guztizko kopurua % 68 handitu zen, O sorburuko GPSen ondorioz (% 55), PZ sorburukoak % 24 jaitsi baitzen.

4. grafikoa
Jakinarazpen-kopurua sorburuaren arabera.
EAE 2013-2023



3. taulan, 2013. urtetik jatorriaren arabera jasotako jakinarazpenak agertzen dira. 2022tik, jatorri nagusia Osakidetza Lehen Mailako Arreta izan da. 2023. urtean, nabarmentzen da Osakidetza pertsonal fakultatiboaren jakinarazpenen % 85 lehen mailako arretakoa izan dela.

Osakidetzatik jakinarazitako GPS guztietatik, 65 jakinarazpen norberaren konturako langileen edo langile autonomoen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziari atxikitako langileenak izan dira, 59 LMAtik eta 6 AEtik.

3. taula. Jakinarazpen-kopurua jatorriaren arabera. EAE, 2013-2023

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arreta Espezializatua	21	26	52	118	74	161	142	91	72	89	99
Lehen Mailako Arreta	47	29	12	26	16	7	32	134	126	206	549
Ikuskaritza Medikoa	18	9	7	2	6	4	4	5		2	13
Prebentzio-Zerbitzua	716	643	508	440	340	306	254	160	173	170	129
Laneko Osasuneko Unitatea	1	1	5	1	7			4	1	2	1

4. taulan, 2013. urtetik ESletatik jasotako jakinarazpenak agertzen dira. 2023. urtean, Osa-kidetzatik jasotako jakinarazpenak sareko 125 osasun-zentrotan hasi ziren, 2022an ez bezala, urte hartan hasitakoak 94 izan baitziren.

ESI guztietan handitu ziren jakinarazpenen kopurua, batean izan ezik. BARRUALDE-GAL-DAKAO eta BILBAO-BASURTO ESlek Osakidetzatik eratorritako GPSen jakinarazpenen % 60 bildu zuten.

4. taula. Jakinarazpenen jatorria, ESika. EAE, 2013-2023

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Barrualde-Galdakaoko ESla	6	12	15	35	35	41	74	43	53	65	230
Bilbao-Basurtuko ESla	2	2	16	49	31	51	44	55	48	67	168
Donostialdeko ESla	4	3	4	2	8	14	13	28	21	31	76
Arabako ESla	12	10	7	12	5	1	7	9	26	28	43
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla	8	8	14	24	7	29	21	27	20	32	36
Goierri-Urola Garaiko ESla	13	7	5	3	6	10	6	18	16	29	34
Uribeo ESla	6	2		3	6	1	8	17	4	18	24
Bidasoako ESla		1					1	2	1	6	18
Barakaldo-Sestaoko ESla	3	2	1	6	1	3	3	6		7	16
Tolosaldeko ESla			1		1	3	2	9	4	2	9
Debagoieneko ESla	11	7	2	4			1	4	3	10	5
Debarareneko ESla	3	2		4	2	1	1	19	2	2	2
Informaziorik gabe	18	9	7	4	3	1	3	7			

5. taulan, azken 11 urteotan prebentzio-zerbitzuetatik jasotako jakinarazpenak sailkatu dira prebentzio-zerbitzuaren arabera: KPZ edo PZP-PZM. Kanpoko prebentzio-zerbitzuetako langile fakultatiboak dira jakinarazle nagusiak urte guztietan.

5. taula. Jakinarazpenen jatorria PZ motaren arabera. EAE, 2013-2023

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kanpoko Prebentzio-Zerbitzuak	682	595	458	402	313	265	218	117	120	139	111
Prebentzio-Zerbitzu Propioak eta Mankomunatuak	31	35	43	37	27	40	34	46	53	31	18

6. taulan zehazten da PZ deklaratzailerik 2023an egindako jakinarazpenen kopurua. KPZetan sortutako jakinarazpenen % 56 KPZ bakarrean hasi zen.

6. taula. Jakinarazpenen jatorria prebentzio-zerbitzuen arabera. EAE, 2023

	PREBENTZIO-ZERBITZUA	JAKINARAZPEN-KOPURUA
KPZ	IMQ Prevención, S.L.	72
	CFP Servicio de Prevención, S.L.	14
	Previtek-Previtasa, S.L.	9
	Aspy Prevención, S.L.	5
	Quirón Prevención, S.L.U.	4
	Ibersys Seguridad y Salud, S.L.	3
	Vitaly Health Services, S.L.	2
	Lautalan, S.L.	1
	CEI Prebentzio Zerbitzua SLU.	1
PZP-PZM	Eusko Jaurlaritzak - Administrazio Orokorra	4
	Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua	4
	Metro Bilbao, S.A.	3
	PZM San Prudencio	3
	PZM Osarten	2
	Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila	1
	Osarten Fagor Ederlan	1

3.1.3. GPS 2013-2023 bilakaera, diagnosi-taldearen arabera

7. taulan azken 11 urteetan diagnosi-taldearen eta/edo GNSen arabera multzokatutako jakinarazpenek izan duten bilakaera ikus daiteke, eta diagnostiko guztiek gorakada izan dute, hipoakusiak eta gaixotasun infekziosoak izan ezik.

2023. urtean, jakinarazitako patologia guztien % 68 gaixotasun osteomuskularrak izan ziren. Aurreko urteetako eboluzioaren analisian ez bezala, egungo analisian sorbaldako lesioak eta Quervainen sindromea banakatu dira beste osteomuskular batzuen taldekatetik.

Gehien jakinarazi diren gaixotasun osteomuskularrak epikondilitisa (osteomuskular guztien % 41), karpoko kanalaren sindromea (% 26), sorbaldako lesioak (% 15) eta Quervainen sindromea (% 10) izan dira.

Tumoreen eta pneumokoniosiarene jakinarazpenen kopurua ere nabarmendu behar da, % 35 eta % 75 igo baitira, hurrenez hurren, 2022. urtearekin alderatuta.

7. taula. Jakinarazpenen kopurua diagnosi-taldearen arabera. EAE 2013-2023


	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Epikondilitisa	50	40	41	38	23	35	48	83	74	90	218
Karpoko Kanalaren Sindromea	42	35	38	57	45	30	28	46	50	68	137
Sorbaldako lesioak	28	15	12	8	10	17	21	18	19	32	78
Hipoakusia	552	500	351	274	209	112	115	67	76	81	59
Quervainen sindromea	7	8	7	6	3	5	7	14	13	17	54
Beste muskulueskeletiko batzuk	7	5	10	3	3	5	12	15	21	35	50
Tumoreak	13	8	23	31	30	44	39	35	32	37	50
Pneumokoniosia	35	32	32	101	50	73	45	29	20	28	49
Pleura-alterazio ez tumoralak	3	2	3	5	1	16	35	17	19	14	30
Asma	17	17	21	18	12	61	26	15	7	13	20
Gaixotasun dermatologikoak	12	8	15	11	14	17	21	23	9	15	18
Gaixotasun infekziosoak	6	9	8	5	22	44	17	25	21	25	12
Noduluak ahots-kordetan	20	24	17	23	18	10	4	3	4	8	10
Beste arnasketa-gaixotasun batzuk	1	2	5	3	2	6	14	3	4	5	5
Gainerako patologiak	10	4	2	3	1	2			2		1

3.1.4. GPSen bilakaera 2013-2023 gaixotasun profesionalen onarpen-maila


5. grafikoan ikus daitekeenez, 2019. urtera arte, oro har, onarpen-ehunekoa eutsi egin zitzaion gizonen kasuan. 2020an behera egin zuen, eta, 2021ean eta 2022an gora egin bazuen ere, onarpenen ehunekoa % 49tik % 32ra jaitsi da 2023an, 2022arekin alderatuta.

Urteetan zehar emakumeen onarpen-ehunekoa aldakorragoa izan da, nahiz eta urtero onarpena gizonena baino txikiagoa edo berdina izan. 2023. urtean, emakumeen onarpenen ehunekoa 2022. urteko % 28tik % 23ra jaitsi da.

5. grafikoa
Onartutako jakinarazpenen ehunekoa sexuaren arabera.
EAE, 2013-2023



Bi jatorriengatik GP gisa egindako jakinarazpenen onarpenei dagokienez, 2022. urtearekin alderatuta, 2023. urtean jaitsi egin da bietan: % 55etik % 49ra prebentzio-zerbitzuetatik datozenak eta % 34tik % 25era Osakidetzatik datozenak, 6. grafikoan ikus daitekeen bezala.



8. taulan, 2023an jasotako GPS jakinarazpen guztien banaketa eta horien emaitzak ikus daitezke. Jakinarazpenen % 90 izapidetu da, eta horien emaitza txosten honetako «3.2.7. Ebazpenak» puntuan zehazten da.

Gizarte Segurantzari aurkeztutako susmoak izapidetu aurretik, jasotako kasu bakoitzeko, Cepsos sisteman gaixotasun profesionalaren parterik ba ote zegoen egiaztatu zen. 2023. urtean, hori gertatu zen 30 jakinarazpenetan, eta ez ziren, ondorioz, izapidetutako jakinarazpen moduan zenbatu (7 PZ jatorrikoak eta 23 O jatorrikoak).

Metodologiaren zatian azaldu den bezala, baztertzeko beste irizpide batzuk ere egon ziren. Ondorioz, beste 3 jakinarazpen geratu ziren Gizarte Segurantzari izapidetu gabe (2 PZkoak eta 1 Osakidetza).

Analisi hau ixteko unean, jakinarazpenen % 6 aribidean dago.

8. taula. Jakinarazpen kopurua, guztira eta emaitza sorburuaren arabera. EAE, 2023

	AURRETIAZKO GP	EZ DA IZAPIDETU BEHAR	MARTXAN	ERANTZU-NAREN ZAIN	ONARTUTAKO GP	BAZTERTUTAKO GP	GUZTIRA
Sorburua PZ	7	2	2	11	56	52	130
Sorburua Osakidetza	23	1	46	145	140	306	661
Guztira	30	3	48	156	196	358	791


3.2. 2023. urtean izapidetutako GPS jakinarazpenen analisia

3.2.1. Lurraldea eta jatorria

2023an jasotako 791 jakinarazpenetatik, 710 GPS jakinarazpen izapidetu ziren Gizarte Segurantzari, bertan baloratzeko. Gehienak Bizkaian jakinarazi ziren (405), ondoren Gipuzkoan (198) eta Araban (107).

Hiru lurralde historikoetan, izapidetu beharreko jakinarazpen gehienak Osakidetzako pertsonal fakultatiboek hasi zituzten, 7. grafikoa ikus daitekeen bezala.

Izapidetutako jakinarazpenetatik 57 norberaren konturako langileei edo autonomoei zegozkien: 7 Araban, 44 Bizkaian, eta 6 Gipuzkoan.




9. taulan, izapidetutako jakinarazpenak agertzen dira lurraldearen eta jatorriaren arabera sailkatuta. Gehienak Osakidetzako Lehen Mailako Arretatik (494) zetozen, eta gainerakoak Osakidetzako Prebentzio Zerbitzutik (118) eta Arreta Espezializatutik (87). Nabarmendu behar da Bizkaiko Lehen Mailako Arretatik 310 jakinarazpen izapidetu direla.

9. taula. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua lurraldearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2023

	ARRETA ESPEZIALIZATUA	LEHEN MAILAKO ARRETA	PREBENTZIO ZERBITZUA	LANEKO OSASUN UNITATEA	JATORRIA IM	GUZTIRA
Araba	10	73	21	1	2	107
Bizkaia	57	310	31	0	7	405
Gipuzkoa	20	111	66	0	2	199
Guztira	87	494	118	1	10	710

3.2.2. Lurraldea eta sexua


8. grafikoan ikus daitekeen bezala, izapidetutako jakinarazpen gehienak gizonenak izan ziren hiru lurraldeetan. Guztira izapidetutako 710etatik, % 60 gizonenak izan ziren (427), eta % 40 emakumeenak (283).



3.2.3. Adina eta sexua

9. grafikoan ikus daitekeenez, GPSen jakinarazpenen adin-tarterik ohikoena 50-64 urte artekoa izan zen (309 jakinarazpen), eta ondoren 30-49 urte artekoa (279 jakinarazpen).

Emakumezko langileen artean, maiztasuna ia berdina izan zen 30-49 eta 50-64 adin-tarteetan. Eta gizonezko langileen artean, 50-64 urtekoek izan zituzten kasu gehien.




3.2.4. Diagnostiko-taldeak eta 1299/2006 Errege Dekretukoak

10. grafikoan ikus daiteke nola banatu diren izapidetutako 1299/2006 EDko 6 taldeen jakinarazpenak 2023. urtean. 2. taldeko jakinarazpenak nabarmentzen dira, hau da, agente fisikoek eragindako gaixotasun profesionalak (hipoakusiak, gaixotasun osteomuskularrak eta ahots-kordetako noduluak) 553 jakinarazpenekin, eta jarraian datoz 4. taldeko substantziak arnasteak eragindako GPak (74 jakinarazpen) eta agente kartzinogenikoek eragindako GPak (42 jakinarazpen).

Informaziorik gabeko 11 jakinarazpenetan ezin da jarduera jaso, eta 4., 5. eta 6. taldeetako kasuak bil ditzakete.

10. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpenen kopurua 1299/2006 ED-ko taldeen arabera.
EAE, 2023



11. grafikoa izapidetutako GPS komunikazioen diagnostikoak deskribatzen ditu, GNS-10aren arabera kodetuta. Diagnostiko klinikoaren multzoak dira honakoak: pneumokoniosia, tumoreak, beste gaixotasun osteomuskular batzuk, gaixotasun dermatologikoak, gaixotasun infektzioak eta beste arnasketa-gaixotasun batzuk.

Epikondilitisa izan zen diagnostikorik ohikoena (199 jakinarazpen), gero karpoko kanalaren sindromea (120 jakinarazpen) eta, azkenik, sorbaldako lesioak (78). Haien ondotik datoz hipoakusia (54 jakinarazpen) eta Quervainen sindromea (50 jakinarazpen). Beste gaixotasun osteomuskular batzuk batuta, 45 jakinarazpen izapidetu ziren.


2023an tumorek eragindako GPSen 47 jakinarazpenak izapidetu ziren: 29 mesotelioma, bronkio eta biriketako 11 neoplasia gaizto, sudur-barrunbetako 3 tumore gaizto, maskuriko 2 neoplasia gaizto, prostatako neoplasia gaizto 1 eta larruazaleko kartzinoma 1.

Pneumokoniosien taldean 39 jakinarazpen izapidetu ziren: 28 asbestoak eragindakoak, 9 silizea duen hautsak eragindakoak, 1 hauts ez-organikoak eragindakoak eta siderosi 1.

Era berean, pleura-alterazio ez-tumoralaren 24 jakinarazpen, asmaren 16 jakinarazpen eta gaixotasun dermatologikoen beste 16 izapidetu ziren. Gaixotasun infekzioen artean, nabarmentzekoa da 5 Q sukarrari zegoziola, 5 sarnari eta 1 legionellari. Era berean, ahots-kordetako noduluen 8 jakinarazpen eta beste arnas gaixotasun batzuen 4 jakinarazpen izapidetu ziren.

11. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera.
EAE 2023



Diagnostikoen maiztasunean desberdintasun bat egon zen sexuaren arabera, 10. taulan ikus daitekeen bezala.

Emakumeen artean patologiarik ohikoenak hauek izan ziren: epikondilitisa (94), karpoko tunelaren sindromea (66), sorbaldako lesioak (36), Quervainen sindromea (28) eta beste gaixotasun osteomuskular batzuk (23). Horrez gain, 10 gaixotasun dermatologiko eta ahotskordetako 7 nodulu izan ziren.

Gizonen diagnostikorik ohikoenen artean, emakumeen kasuan bezala, epikondilitisa (105) eta karpoko kanalaren sindromea (54) izan ziren. Haien atzetik kokatu ziren hipoakusia (54), tumoreak (43), sorbaldako lesioak (42) eta pneumokoniosia (36). Quervainen sindromearen 22 jakinarazpen, beste gaixotasun osteomuskular batzuen 22 kasu eta tumorea ez den pleura-alterazioaren 22 kasu izapidetu ziren.

10. taula. Izapidetutako jakinarazpen-kopurua GNS ohikoenen arabera eta sexuaren arabera. EAE, 2023

	GIZONA	EMAKUMEA
Epikondilitisa	105	94
Karpoko kanalaren sindromea	54	66
Sorbaldako lesioak	42	36
Quervain sindromea	22	28
Beste gaixotasun osteomuskular batzuk	22	23
Hipoakusia	54	
Tumoreak	43	4
Pneumokoniosia	36	3
Pleura-alterazio ez tumorala	22	2
Asma	10	6
Gaixotasun dermatologikoak	6	10
Noduluak ahots-kordetan	1	7
Gaixotasun infekziosoak	6	4
Beste arnasketa-gaixotasun batzuk	4	

3.2.5. Agente eragilea

Jakinarazpen gehienetako diagnostikoa gaixotasun osteomuskularra izan zenez, agente eragile nagusia *postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak* izan zen. 11. taulan ikus daiteke 244 jakinarazpen izan zirela gizonen artean eta 247 emakumeen artean. Bigarren agenterik ohikoena *asbestoa* izan zen: 81 jakinarazpen gizonenak eta 9 emakumeenak, eta hirugarrena *zarata*, gizonen 54 jakinarazpenekin.

11. taula. Izapidetutako jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta sexuaren arabera. EAE, 2023

	GIZONA	EMAKUMEA
Postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak	244	247
Asbestoa (amiantoa)	81	9
80 dezibeleko zarata jarraitua edo handiagoa A	54	
Pisu baxuko substantziak	7	7
Pisu altuko substantziak	5	8
Beste agente kimiko batzuk	11	1
Silizea	8	
Ahotsaren ahalegin iraunkorrak arrazoi profesionalen zioz	1	7
<i>Coxiella burnetti</i>	3	2
<i>Sarcoptes scabiei</i>	2	2
Oharretan zehaztu beharrekoa	4	
Nikela eta nikel-konposatuak	3	
Zur gogorren hautsa	3	
<i>Legionella</i>	1	

GPSen jatorriari dagokionez, 12. taulan ikus daitekeenez, postura behartuen eta mugimendu errepikakorren ondoriozko jakinarazpenak Osakidetzatik jakinarazi ziren gehienbat, 453 jakinarazpenekin.

Asbestoa agente eragile izandako jakinarazpen gehienak Osakidetzatik iritsi ziren, 83, hain zuzen ere. Prebentzio-zerbitzuek zarata agente eragile izandako 50 espediente jakinarazi zituzten.

12. taula. Izapidetutako jakinarazpen-kopurua agente eragilearen eta jatorriaren arabera. EAE, 2023

	OSAKIDETZA	PREBENTZIO ZERBITZUA
Postura behartuak eta mugimendu errepikakorrak	453	38
Asbestoa (amianto)	83	7
80 dezibeleko zarata jarraitua edo handiagoa A	4	50
Pisu baxuko substantziak	13	1
Pisu altuko substantziak	9	4
Beste agente kimiko batzuk	7	5
Silizea	5	3
Ahotsaren ahalegin iraunkorrak arrazoi profesionalen zioz	3	5
<i>Coxiella burnetti</i>		5
<i>Sarcoptes scabiei</i>	4	
Oharretan zehaztu beharrekoak	4	
Nikela eta nikel-konposatuak	3	
Zur gogorren hautsa	3	
<i>Legionella</i>		1


3.2.6. Sektoreak

12. grafikoan ikusten da Gizarte Segurantzara izapidetutako 710 jakinarazpenetatik % 56 zerbitzuen sektorekoak direla, % 30 industriaren sektorekoak, % 7 eraikuntzaren sektorekoak eta % 1 lehen sektorekoak. Jakinarazpenen % 6k ez zuten grabatuta JESN bati lotutako enpresa bat, sektore bati esleitzea ahalbidetzen duena, esposizioa enpresa batean baino gehiagotan eman zelako, enpresa ez dagoelako, langileak autonomoak direlako eta abar.



12. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera. EAE, 2023



13. taulan ikus daitekeenez, zerbitzuen sektorean zein industriaren sektorean gaixotasun-multzo guztien GPSak jakinarazi dira, 398 eta 214 kasurekin, hurrenez hurren. Sektore guztietan epikondilitisa izan zen diagnostikorik ohikoena.


13. taula. Izapidetutako jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera. EAE, 2023

	INFOR-MAZIORIK GABE	ERAI-KUNTZA	INDUSTRIA	LEHEN SEKTOREA	ZERBITZUAK
Epikondilitisa		19	57	3	120
Karpoko kanalaren sindromea	2	2	29	1	86
Sorbaldako lesioak		4	26	1	47
Hipoakusia		11	35		8
Quervainen sindromea		1	9		40
Beste gaixotasun osteomuskular batzuk		3	8		34
Tumoreak	20	2	8		17
Pneumokoniosia	12	5	16		6
Pleura-alterazio ez tumoralak	8		10		6
Asma		1	7	1	7
Gaixotasun dermatologikoak		1	2		13
Gaixotasun infektzioak			3		7
Noduluak ahots-kordetan			1		7
Beste arnasketa-gaixotasun batzuk		1	3		

Tumoreen, pneumokoniosiaren eta tumorea ez den pleura-alterazioaren diagnostikoa duten jakinarazpen batzuk, kasu askotan, enpresa bati lotuta agertzen ez diren erretiratuei dagozkie; *informaziorik gabe* ataleko jakinarazpenak dira.

13. grafikoan ikus daitekeenez, gizonen kasuan, jakinarazpen gehien izan zituen sektorea industria izan zen (jakinarazpenen % 42), eta ondoren zerbitzuen sektorea (% 37).

13. grafikoa
Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; gizonak.
EAE, 2023




14. taulan ikus daitekeenez, gizonen kasuan, industriaren sektoreko patologiarik ohikoena epikondilitisa izan zen, eta, ondoren, hipoakusia. Zerbitzuen sektorean, patologia ohikoenak epikondilitisa eta karpoko kanalaren sindromea izan ziren.

14. taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; gizonak.
EAE, 2023

	INFORMAZIORIK GABE	ERAIKUNTZA	INDUSTRIA	LEHEN SEKTOREA	ZERBITZUAK
Epikondilitisa		19	47	2	37
Karpoko kanalaren sindromea	1	2	16		35
Sorbaldako lesioak		4	22	1	15
Hipoakusia		1	6		15
Quervainen sindromea		3	5		14
Beste gaixotasun osteomuskular batzuk		11	35		8
Tumoreak	19	2	8		14
Pneumokoniosia	10	5	16		5
Pleura-alterazio ez tumoralak	7		10		5
Asma		1	7		2
Gaixotasun dermatologikoak		1	1		4
Gaixotasun infektzioak			3		3
Beste arasketa-gaixotasun batzuk		1	3		
Noduluak ahots-kordetan			1		

Emakumeen kasuan, jakinarazpenen % 85 zerbitzuen sektorekoak dira, 14. grafikoan ikus daitekeen bezala.

14. grafikoa
Jakinarazpenen kopurua sektorearen arabera; emakumeak. EAE, 2023



15. taulan ikus daitekeenez, emakumeen kasuan epikondilitisa eta karpoko kanalaren sindromea izan ziren zerbitzuen sektoreko diagnostiko ohikoenak.


15. taula. Jakinarazpenen kopurua sektorearen eta gaixotasun-taldearen arabera; emakumeak. EAE, 2023

	INFORMAZIORIK GABE	INDUSTRIA	LEHEN SEKTOREA	ZERBITZUAK
Epikondilitisa		10	1	83
Karpoko kanalaren sindromea	1	13	1	51
Sorbaldako lesioak		4		32
Quervainen sindromea		3		25
Beste gaixotasun osteomuskular batzuk		3		20
Gaixotasun dermatologikoak		1		9
Noduluak ahots-kordetan				7
Asma			1	5
Gaixotasun infektziosoak				4
Tumoreak	1			3
Pneumokoniosia	2			1
Pleura-alterazio ez tumoralak	1			1

3.2.7. Ebazpenak

Analisi hau ixteko unean, izapidetutako 710 jakinarazpenen % 28 onartu dira, % 50 ez dira onartu eta % 22 erantzunaren zain daude.

Sexuen arteko aldeak daude izapidetutako komunikazioen onarpenaren/ez onarpenaren ehunekoari dagokionez, 15. grafikoa ikus daitekeen bezala. Onarpen hori % 31koa da gizonen kasuan, eta % 22koa emakumeen kasuan. Ez-onartuak % 46 izan dira gizonen kasuan, eta % 58 emakumeenean.



16. taulan ageri dira bi sexueta 2 patologia ohikoenen ebazpenak. Epikondilitisari dagokionez, % 27 onartu ziren gizonetan eta % 18k emakumeetan; karpoko kanalaren sindromeari dagokionez, % 31 gizonetan eta % 36 emakumeetan.


16. taula. Jakinarazpenen kopurua, epikondilitisaren eta karpoko kanalaren sindromearen ebazpenaren eta sexuaren arabera. EAE, 2023

	ONARTUA		EZ ONARTUA		ERANTZUNAREN ZAIN	
	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
Epikondilitisa	28	17	59	60	18	17
Karpoko kanalaren sindromea	17	24	30	27	7	15

16. grafikoak izapidetutako jakinarazpenen kopurua eta jatorriaren arabera bereizmena erakusten ditu. Prebentzio Zerbitzutik datozen izapidetutako jakinarazpen guztien onarpena % 47koa da. Osakidetzatik datozenei dagokienez, % 24koa da.

16. grafikoa

Izapidetutako jakinarazpen eta ebazpenen guztirako kopurua sorburuaren arabera.
EAE, 2023



4.

Ondorioak

- Gaixotasun profesionalaren susmoen jakinarazpen gehiago jaso dira 2023an (791) 2022an (469) baino.
- Emakumeen komunikazioen 2023ko intzidentzia-tasa 2008an komunikazio-sistema hasi zenetik izandako handiena izan da.
- 2020tik, jakinarazle nagusia Osakidetzako medikuak dira (661 jakinarazpen 2023an, Prebentzio Zerbitzutik etorritako 130 jakinarazpen aldean).
- 2023an Osakidetzatik jasotako jakinarazpenen kopurua % 55 hazi da; prebentzio-zerbitzutik jasotako jakinarazpenen kopurua, berriz, % 24 jaitsi da.
- Gehikuntza egon da bai arreta espezializatuan sortutako jakinarazpenetan, baita lehen mailako arretan sortutakoetan. 2023. urtean, Osakidetzako langileen jakinarazpenen % 85 lehen mailako arretakoa izan da.
- 2023an, 16 prebentzio-zerbitzuek ere izapidetu zituzten gaixotasun profesionalaren susmoen jakinarazpenak, prozedura hori oinarri hartuta. Jakinarazpen gehienak kanpoko prebentzio-zerbitzuek bakar batetik jaso ziren.
- Jakinarazitako patologia guztien % 68 gaixotasun osteomuskularrak izan ziren.
- 2023an jasotako 791 jakinarazpenetatik, 710 GPS jakinarazpen izapidetu ziren Gizarte Segurantzaren, bertan baloratzeko (guztien % 90).
- Gizarte Segurantzako Norberaren Konturako Langileen edo Langile Autonomoen Araubide Bereziko langileen 65 GPS jakinarazi dira, eta horietako 57 izapidetu dira gizarte-segurantzaren mutua laguntzaileetara, baloratzeko.
- Epikondilitisa izan da izapidetutako GPSen diagnostikorik ohikoena, 199 jakinarazpenekin, eta ondoren karpoko tunelaren sindromea, 120 komunikaziorik eta sorbaldako lesioak, 78rekin.

- 2023an tumorek eragindako GPSen 47 jakinarazpenak izapidetu dira: 29 mesotelioma, bronkio eta biriketako 11 neoplasia gaizto, sudur-barrunbetako 3 tumore gaizto, maskuriko 2 neoplasia gaizto, prostatako neoplasia gaizto 1 eta larruazaleko kartzinoma 1.
- Zerbitzuen sektorea izan da 2023an GPS kopuru handiena izan duen sektorea (398 jakinarazpen), eta ondoren industriaren sektorea (214 jakinarazpen).
- Txosten hau idazteko datuak lortzeko egunean, GSMLen eta/edo GSINen erantzuna jaso da Gizarte Segurantzari 2023an izapidetutako jakinarazpenen % 78an; % 28 onartu dira eta % 50 ez dira onartu.
- Jakinarazpenen onarpenen ehunekoa % 31 izan da gizonen artean, eta % 22 emakumeen artean.
- Prebentzio Zerbitzuek izapidetutako jakinarazpenen % 47 eta Osakidetzak izapidetutakoen % 24 onartu dira.



ZERBITZU OROKORRAK

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

ARABAKO LURRALDE ZENTROA

José Antxotegi, 1
01009 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. +34 944 032 190

BIZKAIKO LURRALDE ZENTROA

Dinamita Bidea, z.g. (Basatxu Mendia)
48903 Barakaldo (Bizkaia)
Tel. +34 944 032 190

GIPUZKOAKO LURRALDE ZENTROA

Maldatxo Bidea, z.g.
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. +34 944 032 190

www.osalan.euskadi.eus